

Donostian, 2001.eko urtarrilaren 26an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
M. Azkarate,
P. Charritton,
J. L. Davant,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
B. Oihartzabal,
C. F. Ondarra,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
Ibon Sarasola
J. M. Satrustegi,
Andres Urrutia eta
Patxi Zabaleta
euskaltzainak,
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudea-
tzailea eta
J. J. Zearreta, ekonomi eragilea (3.
gaian).

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioa-
ren jauregian bildu da Euskaltzaindia,
2001.eko urtarrilaren 26an, hileroko ba-
tzarra egiteko. Bileran goizeko hamarrak
eta laurdenetan hasi da. Bildu diren eus-
kaltzainen izenak ezkerreko zutabea-
soak ageri dira. Ezin etorria adierazi dute
Xabier Diharcek eta Txomin Peillenek.

Euskaltzainburuaren hitzak

Euskaltzainburuak urte berri on opa die
bildutako guztiei. Ondoren, azken bilku-
ran hautatuak izan ziren zuzendaritzaki-
deei, H. Knörr buruordeari, P. Goenaga
idazkariari, J. A. Arana diruzainari, Beñat
Oihartzabal ikersailburuari eta A. Urrutia
Jagonsailburuari dei egin die mahaira,
Barne erregelen 11.6 artikulua arabe-
ra, karguaz jabetzeko. Ekitaldi labur ho-
nen ondoren, atzera beren aulkietara itzu-
li dira. Mahaiaren euskaltzainburua,
buruordea eta idazkaria gelditu dira.

Aurreko batzar-agiriak onartzea

Andres Iñigo jaunak hauteskunde batzarreko agirian botu zenbaketan okerren bat
egon behar duela adierazi du. Ikersailburuaren hautaketan bi boto zuri ageri dira bai-
na bakarra izan behar duela esan du. Hala zuzenduko da.

Bestalde, M. Azkaratek Altunaren eta Sarasolaren ahalak ez ezik, Salabururena
ere bazuela adierazi behar dela esan du euskaltzainburuak. Hori ere behar bezala zu-
zenduko da.

Eta beste oharrik gabe onartu dira hiru agiriak.

Hizkuntza arauak.

Hiztegi Batuko a-aberats zerrenda onartzea.

Lehenbizi Xabier Kintana jaunaren oharrak eztabaidatzeari ekin dio batzarrak.

Abarizia / abarizios sarreretan ematen den *Zah.* marka ez du gustuko ohargileak. Horren ordez, hala ere, batzordeak ez daki “hobe” behar duen ala zer. Zer proposatuko lukeen galdetu zaio. Gaur gutxi erabilia dela esatea eta hitz patrimonial gisa uztea nahi luke. “Zah.” jarriz gero –erantzun zaio– esan nahi du ez dela gutxi erabilia, batere ez baizik. Ibon Sarasolak hartu du ondoren hitza esateko *keria*-ren bidetik edo *diruzale*-tik joan daitekeela aterabidea. Tradizioaren bilakaerari ezin zaiola uko egin eta *abarizia* baztertua gertatu da tradizioan. Azkenean bozkatu da eta honako emaitza izan du bozketak: 9 “Zah.”-en alde. Kontra inor ez. Hortaz, “Zah.” markarekin utziko da.

Abegitsu / abegikor. Kintana jaunak *abegikor* hitzari leku egitea eskatzen du. Eztabaidatu da kontua eta ondoren bozkatu da. Hiztegi Batuko lantaldeak esandakoari eustea proposatzen du Euskara Batuko batzordeak. Proposamen honen alde, zazpi boto izan dira. Biak sartzearen alde bozkatu dute beste zazpi eta zuri, bostek. Bozketan honen ondorioz Ibon Sarasolak orainoz ez sartzea proposatu du. Horrek ez du kentzen erabili ahal izatea. Eta jendeak erabiltzen badu, beti izango litzateke aukera gero sartzeko. Patxi Goenagak biak kentzea proposatzen du. Hau ere bozkatu da eta aldeko zazpi boto atera ditu. Ondoren, *abegitsu*-ren aldeko botoa eman dute hamar euskaltzainek. Eta biak sartzearen aldeko agertu dira hiru. Horrela, atzera-aurrera hauen guttien ondoren, zerrenda dagoen bezala uztea erabaki da.

Ondoren Satrustegi jaunaren oharren eztabaidari ekin zaio.

Ababol hitza dela eta, Miren Azakarate andreak galdetu du ea sartzekotan *Naf.* marka behar ote duen.

Sarasolak desadostasuna ikusten du Satrustegik bere garaian agindu zuenaren eta hemen egiten duenaren artean. Osagarri gisako hitzak eskaini behar omen zituen. *Amapola*-ren zein ordain ditugun jakin beharko genuke lehenbizi eta gero ikusi ea behar dugun hitz berririk. Hemen hiztegiak eta horrelako kontuak aipatzen dira. Hau argitu behar litzatekeela uste du Sarasolak.

J. M. Satrustegik erantzun dio esanaz beldur dela hiztegi desorekatu bat egiten ez ote den ari Euskaltzaindia. Errespeto handiena behar dute aurrekoengandik jasotako hitzek. Prozedura eztabaidatu zenean hiru puntu onartu ziren: 1) hitz bat euskalki batean baino gehiagotan ageri bada, aski indarra du; 2) hiztegiaren baldin badaude; 3) inon ez badaude, orduan beste iturriak bildu. Hirugarren honi heldu dio Sarasolak, baina berak ekarritako hitzak hiru irizpideotan oinarrituta ekarri dituela.

Nafarren artean *ababol* esaten duenik baden galde egin du Sarasolak. Satrustegik erantzun dio berak entzuna duela baina ez dakiela erabiltzen den. H. Knörrek, berriz, *ababol* hitza erdaraz erabiltzen dutela dio. Gereñuren hiztegiaren ageri dela. Aragoen era biltzen da. Baina ez dakiela euskaraz zer pasatzen den. Zabaletak eta Iñigok diote ez dutela ezaguna.

Gauzak horrela, bozkatzea proposatu da. Baina proposamena erretiratu egin du, azkenean, Satrustegik berak. Hala onartu da.

Abadeki sartzeta onartu da ‘apaizgaia’ adierarekin.

Abemaria jo esapidea sartzeta eskatzen du ohargileak. Zerrendan *abemarietako* jo dago jaso. Ez da onartu Satrustegiren eskaria. Bestalde, *Abemaria-etzila* sartzekoa litzateke baina horrela ala *Abemari etzila* behar ote lukeen eztabaidatu da. Azkenean

bidezkoagoa iritzi zaio *Abemaria ezkila* azpisarrera gisa ematea eta sinonimo gisa *ilun ezkila*.

Abarrikatu sartzea proposatzen du Satrustegik. Zerrendan ageri den *abarrakitu* hitza zaharkitua ote den zalantzan jartzen du. Nolanahi ere, hitz beraren aldakiak dirateke. Azkaratek duda du ea merezi ote duen aldaera hau ere sartzea. Kintanak proposatzen du batetik bestera bidaltzea: e. oharrarekin. Sarasolak *Naf.* oharrarekin joatea egokiago litzatekeela dio: *Naf.* ‘*abarrakitu*’. Hala onartu da.

Abegor* ageri da zerrendan. Honen parean *abegorri*-ri ere leku egitearen aldeko da Satrustegi. Hemen ere lehengo zalantza bera agertu da: hitz beraren aldaerak badira, *abegi* izanik zaharrena eta erabiliena, neke da beste bi hitzak onartzea. Azkenean *abegor*-en sarrera zerrendatik ezabatzea erabaki da.

Hamabietan batzarra eten egin du euskaltzainburuak, ETA-ren azken hilketa dela eta nahi duenak diputazioko gainerako langileekin batera kalean egiteko den bilkura isilean parte har dezan.

Hamabiak eta erdietan berriro ekin zaio bilkurari. Andres Urrutia jaunaren oharak hartu dira aztergai.

Abadira hitza sartzea eskatzen du ohargileak. Hitz honi leku egiten bazaio, jarraipena eskatuko du. Horregatik, komeni da irizpideak finkatzea. Eta sartu ez arren, irizpideak finkatzea komeni dela dio modu sistematikoan jokatzeko.

Sarasolak dio *Hiztegi Batuan* egongo dela, seguruenara, “abadejo” izeneko arrainarentzat hitzen bat, baina ezin bilatu. Galde egin du ea ez ote litzatekeen bideren bat asmatu beharko Interneterako, adibidez, erdaratik abiatuz euskal ordaina zein den jakin nahi duenarentzat ordain hori modu errazean bilatzeko tresnaren bat. Euskaltzaindiak horretan pentsatzen hasi beharko lukeela. Hiztegi horretan erdaratik sartutako euskal materialak ere badirenez, horiek identifikatu beharko lirateke.

Oraingoz **abadira** ez sartzea erabaki da. Gero, arrainekin eta gainerakoekin sistematikoki eginez gero, ikusiko da.

Abal hitzari Urrutiak Zuz. marka jarriko lioke. Onartu da eta ‘*bermea*’ adiera duela esango da. *Abal(-)emaile* hitzari, berriz, ‘*bermea ematen duena*’ adiera erantsiko zaio. *Abalkide* ere sartzea onartu da.

Abantari sartzea onartu da..

Abantzamendu hitza dela eta, eztabaida labur bat sortu da. Iparraldeko euskaltzainek berek ez diote oso abegi ona egin hitz hori sartzeko proposamenari eta Urrutia jaunak erretiratu egin du.

Abarras sartzeko eskaria ez da onartu. *Trementina* litzateke nazioarteko hitza.

Abarrategi sartzea eskatzen du Urrutiak. Baina **abartegi** hitza dagoeneko jasoa denez eta, hain zuzen, forma erregularra berau denez, ez da onartu proposamena.

Abazuza dela eta Urrutiak egindako oharra ontzat eman da: “abazuza. e. **babazuza**” bezala jasoa geratuko da.

Abenderri hitzari leku egin behar zaiola uste du Urrutiak. Abenda-ren parean arraza hobetsi den bezala, abenderri sartzea egoki ikusten du, beti ere nazio hobetsiz.

Hitz hauek duten arazoa da guztiz ideologizatuak daudela. Gainera, kasu honetan badirudi hitzak ez duela lortu bere tokia izatea. Ohargileak azaldu du bere asmoa hitz horren erabilera baztertzea dela. Baztertze modua ez aipatzea bada, onartuko lukeela isilik uztea. Zabaletak aipatzea nahiago luke, behar diren oharrekin. Bozkatu da eta hamasei boto izan dira sartzearen alde: “e. **nazio**” oharrarekin emango da.

Abenturazale sartzea onartu da.

Aberasketa ez da sartuko, adierak arazoak sortzen baititu eta erabili ere ez delako erabili.

Aberaspide-ri dagokion ortografia zuzenketa onartu da: *s-z* idatziko da.

Azkenik, H. Knörrek aurkeztutako oharra eztabaidatu dira.

Abaila eta **abiadura** hitzen ondoan *lastertasun*-i lehenetsua ematea nahi luke ohargileak. Miren Azkaratek erantzun dio esanaz zerrenda dagoen bezala, lehenetsua hori nolabait ziurtatua dagoela, adiera azaltzeko *lastertasuna* ematen baita. Luze joan da hitz honen adierari buruzko eztabaida. Honela aldatua gertatu da sarrera hori azkenean: **abaila** iz. ‘abiada, oldarra’ Adibide egokia bilatzen saiatuko dira hurrengo bilerarako. Batez ere “ímpetu” adiera argitzen lagunduko duen adibidea bilatu nahi da.

Abandonatu-rentzat alorren bat gordetzea eskatzen du Knörr jaunak. Zuzenbide alorrerako markatzea onartu da. “du ad. 1 Zuz. 2 h. ‘utzi’; ‘alde batera utzi’, ‘bertan behera utzi” ezarriko da. Gero, azalpena ematearren adibide egokia bilatzeko txosten-txo bat prestatuko du Urrutia jaunak hurrengorako.

Abantaila hitzari adibideren bat eransteko eskaria egiten du ohargileak. Ez da onartu, jadanik ohar hori nolabait jaso dagoelakoan.

Abantzu *Ipar.* eta *Naf.* markekin emango da. **Enantzu** hitza ere aipatu da. Dirudienez, *abantzu*-ren forma bat besterik ez litzateke. Beste zenbaitentzat bi hitz desberdin dira. Larre jaunaren ustez, adibidez, ‘rendimiento’ esan nahi omen du. *Enanzo* ere esaten omen da erdaraz, Ondarra jaunaren ustez.

Gero *abantzu*-ren bigarren sarreran jasotzen dena eztabaidatu da. Adibide on baten bila jardun dute euskaltzainek. Azkenean honako hau emango da: *langile hori abantzu handikoa da*. Bigarren sarrera honetako lehen adiera dagoen bezala utziko da: iz. “aurrerapena, aitzinamendua, trebezia” besterik gabe. Bigarren adierarako *enantzu* sartzea onartu da, *Ipar.* eta *Naf.* markekin. Lehenbizikoari *Ipar eta Naf.* jarriko zaio.

Abar-en sarreran ematen den “eta abar luze bat” delakoari dagokion oharra kentzeko proposamena egin du batzordeak. Kalko desagokia dela esatea aski dela esan da. Horren ordez erabil “eta abar eta abar”. Hala onartu da.

Abat sarreran, hitz elkarketarako *abat-* forma sartzeko eskaria ez da onartu. Horrela erabaki baitzen bere garaian.

Abelbide-ren ordainaren forma egokia (*altxunbide* ala *altxonbide*) zein den aurrerago erabakitzeko utzi da.

Kintanak eskatu du dagoeneko argitaratua dagoen **abao** hitzari *Bizk.* marka jartzea.

Abendu-ren ondoan *etorrera* hitza sartzeko eskaria egin du Knörrek. Ez da onartu.

Abeniko hitza adiera bakarrarekin -‘hitzarmena’- ematea onartu da.

Ondoren, Miren Azkarate andreak zerrendan jasoak dauden gainerako oharrak azaldu ditu:

Abaroan eduki azpisarrera kenduko da. **Abasberuan**-i lehentasuna eman nahi lioke Sarasolak. Hala ere, **abespelean** emango da. Abasberuan* e. **abespelean** ‘jo ta ke’.

Abasto agintzen dute testuek. Hala onartu da: adlag. her. ‘ugari nahikoa’. abastu* e. **abasto**.

Honenbestez, amaitutzat eman da hiztegi batuari buruzko oharren azterketa. Hurrengo bilerarako gelditzen dira gramatika kontuak. Gai zerrendako 1.1.2 puntua ere (“*Eguneroko hitzen lantaldearen proposamena*”) hurrengorako utzi da.

Madrilgo “Instituto Geográfico Nacional” delakoari emandako erantzunaren arau baliotz.

Madrilgo “Instituto Geográfico Nacional” delakoak egindako eskariari emandako erantzuna sartu da bilerako gaien karpetan “hizkuntza arau” gisa. Sarasolak bere harridura erakutsi du. Idazkariak azaldu du horren kontsulta egin ziola Telleria jaunak eta argi esan zitzaiola Euskaltzaindiaren erabaki hori ez dela arau bat, jasotako kontsulta bati Euskaltzaindiak emandako erantzuna baizik. Horrenbestez, Euskaltzaindiaren erantzuna dela esango da. Urrutia jaunak gogorarazi du Euskaltzaindiaren arauetan erabaki mailak bereizten direla. Hori aztertu beharko litzatekeela berriro, eta horren arabera argitara eman *Euskera*-n.

Erakundearen herrialde ordezkariak izendatzea.

Zuzendaritzak, barne-erregelen arabera, datozen bi urteetarako lurralde ordezkarien izenak proposatu ditu. Aldaketa bakarra Gasteizkoari dagokio: orain arte P. Goenaga izan da. Honek aldatzea eskatu du eta H. Knörren izena proposatzen da. Onartu da proposamena. Hortaz: Nafarroan Andres Iñigo jaunak jarraituko du; Gipuzkoan J. M. Lekuonak; Iparraldean Charrittonek eta Araban H. Knörrek.

Eskuartekoak

Nafarroako gobernuburuari egindako gutuna.

Erantzunik ez da jaso. Satrustegi jaunak dio gutuna bidali duela Euskaltzaindiak, baina beste zerbait ere egin beharko litzatekeela. Inoiz prentsaurrekoak eta egin direla, eta, behar bada, orain ere horrelako zerbait egin behar litzatekeela, erdibidean geratu gabe. Prentsaurrekoa egiteko zer asmo dagoen galdetu du. Lizundiak azaldu dio oraingoz banaketa soilean gelditzea erabaki zuela zuzendaritzak. Zabaletaren ustez, zuzendaritzak prestatu behar luke Satrustegik dioena. Euskaltzaindiak bere iritzia eman behar luke ahal den abarrotsik gehiena ateratzeko moduan. Hori ongi ikusia izango litzateke. *Zabaltzen*-ekin gertatua ere aztertu behar litzatekeela dio. Egoera orokorrari buruzko iritzia eman behar luke Euskaltzaindiak.

Ondoren, Urrutia jaunak hartu du hitza: zuhurtziaren izenean jokatu da horrela, Eusko Ikaskuntzaren arazoa ere hor baitzegoen. Baina Euskaltzaindia erakundea da eta

erakundetik erakundera jardun behar du. Ondoren galde egin du ea komeni den aurre-
ra egitea. Nafar euskaltzainek zer uste duten galdetu du. Gauzak ongi neurtu behar dira.
Egiten denak ondorioak izan baititzake. Gogoeta egin behar da.

Txarritonek dio Euskaltzaindiak bilera orokor bat egin behar lukeela, propio, ego-
era salatzeko.

Satrustegiren ustez egoera berdinean lehen ere izan da Euskaltzaindia Nafarroa-
ko agintariekin. Aldatu den bakarra da Euskaltzaindiak emandako erantzuna. Lehen han
punta-puntan joan zen Euskaltzaindia, bidegabekeriak salatuz. Orain ere, epelkeriarik
gabe, ongi pentsatu eta jasandako eraso salatu behar da.

San Martin jaunak gogorarazi du lan bat egina duela *Egan*-erako Euskaltzaindia-
ren sorrera eta abar azalduz. Han erregearen hitzak gogoratzen dituela Euskaltzaindia-
ren betebeharrak zein diren azalduz.

Hurrengo bilera

Hurrengo bilera Lekeition izango dela gogorarazi zaie euskaltzainei. Han egingo
dira barne-jardunaldiak. Euskaltzainburuak oroitarazi nahi izan du han gogoeta egingo
dela datozen bi urteetako lanaz, baina hori baino zerbait gehiago ere egin daitekeela
jardunaldi horietan. Gauzak pentsatuak eramatea eskatu die. Bilkura otsailaren 23an eta
24an izango da.

Epaimahaiak

Madrilgo Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministeritzak urtero antolatzen dituen sa-
rikerietarako epaimahaikideak izendatzeko eskaria helarazi dio Euskaltzaindiari. Hona-
ko sari hauetarako: Premio Nacional de las Letras Españolas; Premio Nacional de Li-
teratura (Poesía); Premio Nacional de Literatura (Narrativa); Premio Nacional de
Literatura (Ensayo); Premio Nacional de Literatura (Literatura Dramática); Premio Na-
cional de Literatura Infantil y Juvenil; Premio Nacional de Premio Nacional de Tra-
ducción. Literatura batzordearen esku utzi dira izendapenok.

Eta horrenbestez, hirurak hamar gutxitan amaitutzat eman da bilera.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

* * *